



195.000 euroko laguntza zuzena, beste 70.000 euro gehiago bonoetan

Urnietako merkataritzaren egoera zailari aurre egiteko erabakia hartu zen maiatzaren 26ko Udal batzaraldian / 6

Agurrik gabe joan direnak gogoan

Iñaki Zabaleta Andoaingo erretorearentzat "gizagabea izan da hildakoei egin zaien azken agurra". / 2-3

Garaiari egokitutako ekitaldiak


Asteburu honetan Urnietako ospakizunetan murgiltzekoa zen, baina Koronabirusak eragindako krisiak hankaz gora jarri ditu hasierako asmoak. / 7



**Merkatu plaza
aurrerantzean
Andoaingo
Makaldegian egingo
dute, astean bitan** / 10



**Lanbide Heziketarekin
berrabiarazi dute
ikasturtea
Urnietako Magale
ikastetxean** / 9



**Urnietako senior
mailako eskubalo
taldeak 2. Nazional
mailan jarraituko du,
beste urte batez** / 16



Iñaki Zabaleta Andoaingo erretorea. Jada, hamahiru urte egin ditu Andoainen apaiz gisa. AIURRI

“Gizagabea izan da hildakoei egin zaien azken agurra”

IÑAKI ZABALETA ANDOAINGO APAIZA

Koronabirusak eragindako krisia dela eta, arau zorrotzak ezarri zituzten. Horiek direla medio, azken asteetan oso une gogorrak bizi izan dituela aitortu du

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo elizetan mezak normaltasunez ospatzen hasi dira berriro. Eta bigarren fasean sartzearekin batera hileta elizkizunak ere egin ahal izango dira. Andoaingo elizbarrutian daramatzan 13 urtetan Zabaletak

ez du halako ezintasunik sentitu. Herrian gertatu diren heriotzen inguruan egin beharreko erritual ia guztia saihestu behar izanak tristura itzela eragin dio. **Maiatzaren 16-17ko asteburuan mezak normaltasunez ospatzen hasi zineten, berriro ere.**

Bai, hilabete eta erdi itxita eduki eta gero. Aste honetan, hain zuzen lehendabiziko bi hileta egin ahal izan ditugu, asteartean eta ostegunean.

Horretarako, neurri zorrotzak hartu behar izan genituen eta jarraitzen dugu hartzen. Elizak

ateak ireki aurretik, barruko guztia garbitu eta desinfektatu behar izan genuen, eta prozedura berbera jarraitu beharra daukagu meza guztien hasieratan eta bukaeratan.

Alde horretatik, eskerrak eman behar zaizkio garbitzaileez osatutako boluntarioen taldeari, fin aritu delako beti bezala.

Bestalde, mezetara hurbiltzen diren fededunek elizan dauden bitartean musukoa jantzita eduki behar dute.

Aforoari dagokionez, %30a jarri zuten lehen astean, eta fase berrian %50era igo dute. Bankuak markatuta daude jendeak gorde beharreko distantzia errespetatzea.

Eukaristia ospatzeko orduan, badira zenbait arau zentzumenez bete beharrekoak: fededunek bakea elkarri ematerakoan ez luzatzea eskua eta nahikoa izatea begiratuarekin, jaunartzerakoan eskua jartzea... Gainera, mezetan zehar, liturgiako ohiko mezuak zabaltzeaz gain arau eta segurtasun neurriekin zintzo jokatzeko adierazten dugu alderetik.

Esandako guztiak balio dezaake Santa Krutz elizari dagokionez. Bietan, hiru meza ospatzen dira astebururo: bat larunbatean eta bi igandeetan.

San Juan Bataiatzailearen egoitzan ere eskaintzen duzu zerbitzua.

Bai, han asteazkenero izaten da meza. Aizu, egoitza horretan gertatu dena azpimarratu behar genuke! Bertako langileen profesionaltasuna hasteko, koronabirusaren gaitza bertan ez sartzea lortu dutelako. Eta eskertza bertan dauden egoiliarrei eta beren familiarrei luzatuko nieke, zintzo eta diziplinarekin bete dituztelako jarritako arauak; bisitak galarazita, bideo-deiez eta hola ahal duten moduan moldatu dira.

Hemendik aurrera, hiletak elizan egin ahal izango dira nahiz eta aforoarekin mugak egon; bestalde, beilatokian hamar pertsona bildu ahal izango dira, eta hamabost hilerrian. Bada zerbait! **Elizak itxita, beharbada kristau zeremonien artean hiletak jasan dute eraginik bortitzena**

Zalantzarik gabe, oso gogorra izan da, gizagabea! Ezintasuna sentitu dut izugarri, hildako askoren familiarrekin bertatik bertara egotea egokitu baitzait, eta nola kontsolatu egoera horretan? Dolua ez da beltzez jantzea, baizik eta hildako pertsona gogoan hartuta gizalegezko azken agurra egitea, zeremonia publiko eta lurperatzea burutzea... Prozesu horretan, hildakoaren ahaideek eta adiskideek onartzen joan behar dute bizi duten giza galera, barne bakea lortzeko bidean. Bada, hori guztia eragotzi egin dute jarri diren arauak.

Denetarik kasuren testigu izatea egokitu zait. Hilzorian dagoen senar, emazte, guraso edo seme-alaba hori ezin ikusi, ezin harekin hitz egin... Legez, gutxienez 24 ordu igaro behar dira heriotza gertatzen denetik lurperatzen den arte, baina ni ikusi dut pertsona bat 16:00etan hil eta 18:00etan nola erraustu duten, familiarrei ikusteko aukerarik eman gabe. Kanposantuan ere lurperatze ezin tristea goak eta hotzagoak bizi behar izan ditugu: hiru senide, lurperatzailearen eta bostak hantxe, eta gainerako senideak sartu ezinik kanposantura!

Madrildik, adibidez, egoera ankerragoei buruzko albisteak heldu zaizkigu: ehorztetxeek zaharren erresidentzietan zeuden gorpuak nola jasotzen zituzten hiru egunetara, familiarrek nola ez zekiten beren hildakoak non zeuden... Egia da halako kaosera ez garela iritsi Gipuzkoan.

Eta batez ere aipatuko nuke Andoainen ondo ibili garela; portzentualki, Gipuzkoan izan dira herriak gu baino okerxeago ibili direnak.

Zenbat jende hil da azken asteetan Andoainen, arau zorrotz horiek iraun duten bitartean?

San Martingo parrokian 23 pertsona, Santa Krutzen bakarra eta Sorabillan bi.

Hilen kopuruari hilabetez hilabete erreparatzen badiogu, gauza oso kurioa gertatzen ari da: martxoan bederatzi hildako izan dira, apirilean hamabi, eta maiatzean bost herritar hil dira oraingo. Ni parrokia honetan nagoenetik, oso behetik dago kopuru hori, eta ez nuke jakingo azaltzen zergatik ote den.

Hildako guztien arimaren aldeko hileta kolektiboa uztailaren 25en egitekotan dabil Elizako goi jerarkia...

Aukera bat da hori, modu kolektiboan. Baina tokian tokiko ikuspegitik, erantzun zuzenagoa eman diezaiekegu hildakoen senideei; izan ere, jende ugari baita gaizki pasatzen ari dena, azken agurra behar bezala egin ezinagatik. Guztiekin harremanetan jartzen hasi gara, eta zera planteatzen diegu: hala nahiko balute, hurrengo egun eta asteetan hileta-elizkizunak egitea. Asteburuetan ospatu ohi diren mezekin batera izango litzateke, eta ahaidearen oroitzapenak tarte berezia edukiko luke elizkizunean zehar. Lasai pentsa dezaten eskatzen diegu, ez diegu presarik sartu nahi, bai baitakigu herritik herrira mugi gaitzekela jada, baina ez herrialdetik herrialdera, eta egon daitezkeela hainbat senide eta lagun beste herrialdeetan bizi direnak eta Andoainera hurbildu nahiko luketenak.



Maiatzaren 16an meza eskaintzen hasi ziren berritro. AIURRI

Bestelako elizkizunak ere hankaz gora geratu dira azken asteetan. Ezkontzak, esate batera.

Urtaro honetan ezkontza asko izaten da; lau zeuden lotuta zehazki. Atzetik antolaketa handia eskatzen duen ekitaldia da ezkontza, eta horrexegatik, ezkongaiantzat ere buruhauste handia eragin du salbuespen egoerak.

Nolanahi ere, jakin izan dute egoerara moldatzen, eta gehienek jada hurrengo urterako

atzeratu dute aparteko egun hori.

Jaunartzeen hilabetea maiatza da...

Atzeratu behar izan ditugu horiek ere. Irailaren azken aste-burura San Martinen, eta urriko lehen aste-burura Santa Krutzen. Horixe da gure asmoa, nahiz eta gainerako ekitaldi publikoen bezala, horien kasuan ere ez dakigun zein giro edukiko ote dugun urte sasoi horretan. Dena den, osasun krisialdia heldu zenerako jada jaunartzea

egitera zihoazen neskato eta mutikoez nahiko aurreratuta zeuzkaten kristautasuna lantzeko prestaketak, eta beraz, horrek gauzak erraztu ditzake.

Hilaren azken igandean ospatu ohi ziren bataioak ere atzeratu egin dira, noski. Sakramentu horietan guztietan inplikaturik zeuden pertsona eta senideek normaltasunez ulertu dute atzeratzea, salbuespeneko egoerak bultzatuta hartu diren erabakia izan delako.

"JENDE UGARI GAIZKI PASATZEN ARI DA, AZKEN AGURRA BEHAR BEZALA EZIN EGINAGATIK"

"IRAILAREN AZKEN ASTEBURURA ATZERATUKO DITUGU JAUNARTZEAK"

"GIZARTE MAILAN ADIERAZLE KEZKAGARRIAK AZALTZEN ARI ZAIZKIGU"

Erretorearen etxeko azpialdean sumatzen da berriz ere mugimendua azken aldiaren, Caritasen eskutik...

Elkarteko kideek jendearekin harremanetan jarraitu dute nahiz eta telefonoz izan, eta Gurutze Gorriko boluntarioen esku egon da elikagaien banaketa etxez etxe. Poliki-poliki, baina, betiko martxari berrekin dio elkarteak ia. Egintzazu kontu, arriskuko taldekoak gara kide gehien-gehienak; ni izango naiz zaharrena seguruenik.

Krisialdi ekonomikoa etorri zaigu osasun krisialdiaren eskutik. Beharrezko diren pertsonak hurbiltzen hasi al zaizkizue?

Hasi gara sumatzen jendearen etorria, bai. 2008ko krisia gertatu zenean bezala, oraingoan ere "normaltzat" dauzkagun ugari daude tartean. Gipuzkoako Caritas elkartekoak tarteka egiten dituen ikerketen eta txostenen zain gaude, baina jada egunerokotasunean, kezkatzeko moduko adierazleak azaltzen ari zaizkigu. Prestatu beharko gara datorrenari erantzuten jakiteko, eta alde horretatik badaukat konfiantza Andoaingo Caritas elkartearengan, beti izan baita instituzio sendo eta serioa.

Zerbitzu ugari eskaintzen ditu (jaki eta jantzien banaketa, diru laguntzak etxe errentak ordaintzeko, eskolaz kanpoko klaseak haurrei, sukaldaritza eta jostun ikastaroak...), aspalditxotik. Baina beharbada, etorkizunean, erronka polita har lezake lan munduari begira, jendearentzat lanpostuak sortzeko helburuz. Ez litzaiguke gaizki etorriko lan merkatua, kooperatiben mundua, enpresa kudeaketa... ondo ezagutzen dituen pertsonaren bat bultzada emateko egitasmo horri.

MIZPIRADI
TOLARE SAGARDOTEGIA

DAGOENKO ZABALIKI!!

Mizpiradi baserria
Leizotz auzoa - ANDOAIN
943 593 954

LARRE-GAIN
TOLARE SAGARDOTEGIA

BOTILARATUTAKO SAGARDOA ESKURA

Ereñozu auzoa, z/g
HERNANI
943 55 58 46
616 287 867
larre-gain@larre-gain.com

LASTER ZUEKIN GARA

GAZTANAGA
SAGARDOTEGIA

Irurain etxea
Buruntza auzoa
ANDOAIN
943 59 19 68
www.sidreriagaztanaga.com

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

XABIER LASA BERGARA ANDOAIN

Okerreko hautua egin dut bizitzan

Larramendi Bazkunak urteko batzarrean parte hartu nuen joan den larunbatean, bazkide gisa. Baziren zenbait urte Larramendiren batzarretara ez nintzela azaltzen, eta gorputzean ezin egon batekin irten nintzen bileratik. Berririo ez joatea pentsatzen ari naiz. Ez beza pentsa irakurleak ezer “apartekorik” gertatu zenik batzarrean. Tristura, amorrua, etsipena... sentimen ezkor ugarirekin irten nintzen batzarretik, bai. Eta ez da lehenengo aldia halako gorputzaldiarekin amaitzen dudala, era guztietako gizarte erakunde bileretan parte hartu izan dudana bakoitzean. Maiz, maizegi gertatu izan zait horixe, gizarte, kultura edota politika mailako kontzientzia hartu nuenetik eta asoziazionismoak gizarte ongizatean mesede egiten diola sinisten hasi nintzenetik.

Akaso nirea da arazoa, pertsonala, eta psikologo baten premian nabil. Terapia aholkatuko lidake, edo halako kontu altruista ilusoak uzteko eta hedonismoren magaletan erortzen uzteko, bizitza behin bizitzen dela-eta.

Oraingoz, nahiago dut idatziz plazaratu nire neura pertsonalak, eta irakurlearekin partekatu, baten bat identifikatuta sentitzeko esperantzarekin. Horrek nire ezinegona arindu lezakeelakoan.

Nekatuta nago, laburtuz, bilera horietan antzeko koplak entzutera kondenatuta egotera.

Talka egiten duten bi errealitatek osatutako eskema berbera aditu behar baita, maiz. Batetik, giza kapitala, boluntariosmoa barra-barra eta eskuetan egitasmo ilusionagarri eta egingarriak. Eta bestetik, ezintasuna, ezin frustagarriagoa, instituzioen

benetako babes eta konpromisu faltagatik. Inkluso, erruduntasunaren eta autoestimu faltaren sentimenak aditu beharra elkarteko kideen ahotik, “gure egitasmoa ez da hain ona izango...”, “gaizki planteatuko genuen...”. Gehien-gehienetan, ez dira haindainoko dirutza eskatzen duten aurrekontuak izaten. Hiru mila, hamar mila... Obsesioraino murrizten dira aurrekontuak, kontuan hartzen delako elkarrekin kideen kementa, boluntarismoa...

Irudimena pittin bat astinduz, galdetzen badiozu zeure buruari elkarteen egitasmo horiek erakunde publikoek bere gain hartuko balute (beren kargu politiko, zuzendari eta funtzionarioen esku alegia), bada, orduan, ateratzen zaizun ondorioa da aurrekontua izugarri disparatuko litzatekeela.

Eta azken batean, gizartearen ongizate humano,

sozial edo kulturalarentzat bultzada diren egitasmo horiek nekez hartzen dira inbertsio publikotzat. Berdin esan daiteke kultur sortzaileengandik, pandemiak beren prekariedade kronikoa are prekariora bilakatu duen honetan.

Zuhurkeriaz eta gutxiespenez jokatzeko da sarritan elkarrekin eta beren egitasmoekin. Jokabide horren kontrastean, beste muturrean, hainbat obra publikoekiko jokabidea daukagu, faraonikoak horietako batzuk. Inongo erreparorik ez da izaten kontu ezin ahala zero dituzten zifrak bideratzeko horietara. Adibide ilustragarriena, hastapenean lau mila milioi aurrekontua omen zeukan AHTa, eta dagoeneko estimatu zaiona beste bi mila milioi gehiago erantsi beharko zaizkiola.

Normaltasunaren baitan kokatzera behartzen gaituzte bere hastapeneko kostua eta geroztik pilatzen ari den

gailurak. Esaten baitzaigu gizarte baten ongizatearentzat hil ala biziko inbertsioa dela, eta nahiz eta koronabirusaren osasun krisialdi batean murgilduta egon, jendea hiltzen ari, zahar etxeak baliabideetan oker ibili, musukoak ere faltan eduki... lehentasunezko proiektua dela adierazten zaigu.

Amorratzen nau EITBko irrati eta telebistetan iragarki ofizial horietako batean “Euskadi, Auzolana” leloa entzuten dudana aldiro. Komunikabide publiko horiek itzali, eta gure errealitatea nekez islatzen duten Espainiako komunikabideetara jotzeko gogoia ematen dit.

Akaso, nire neurak sendatuko lirateke instituzioek aurrekontuak onartzeko traba askorik edukitzean ez dituzten enpresa horietako baten kide izango banintz, beste gizarte elkarrekin haizetara bidali eta gero.



andoainDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocío Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu bikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ALJATUAK:**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

ZIURTAGIA:

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



IRITZIA

EGUZKI TALDE EKOLOGISTA ETA ANTINUKLEARRA ANDOAIN

Auzokonpostaren heriotza

Duela egun gutxi, 6 urte betetzera zihoazen lehen auzokonposta gunea abian jarri zenetik Andoainen, zehazki Etxeberrieta auzoan. Betetzera zihoazen diogu otsail erdian desagertu egin baitzen Etxeberrietako gunea eta ezin esan une hartan COVID19 birusaren eraginpean geundenik, ez behintzat osasun larrialdiaren ikuspegitik ezta albistegien eraginaren ikuspuntutik ere.

2014. urteko maiatzean Andoainen auzokonposta abiatu zen, herri mugimenduak eta herritar talde batek eskatu eta bultzatuta. Andoainen hondakin organikoa birziklatzen edo konposta egiten hasi zen. Tarte laburrean 38 familia parte hartzen hasi ziren Etxeberrieta plaza eta kiroldegiko guneeetan. Beste gunek batzuk zabaldu ziren Ondarreta kalean (Gurutze Gorriaren ondoan) eta Sorabillan.

Denborarekin ordea nahikoa ez zela egin uste dugu sistema iraultzaile hau herri osora zabaltzeko. Auzokonposta, autokonposta bezala, norbera

bere hondakin organikoen arduradun bilakatzen da eta, hondakinekiko arduratsuago eta kontzienteago izaten laguntzeaz gain, gastu handirik gabe eta eguneroko kamioien kutsadura gabe, hondakin organikoa ongarri bilakatzen da, ondoren landa eremuan, lorategietan edo norberaren landareekin erabiltzeko.

Urteak joan eta urteak etorri hitz politikak jaso genituen auzokonpostaren inguruan: elikagaiekin 0 Km produktuekin alderatzen zutela, herri ekimena sustatu behar zela... Baina arrazoi bat edo beste beti gerorako geratzen zen Udalak auzokonposta bultzatze eta zabaltzearen aldeko kanpaina bat egitea. Hitzak bai, baina ekintzarik ez.

Udalaren ekimen faltak eta hobariek izandako garapena izan dira auzokonpostaren heriotzaren arrazoi nagusiak gure ustez. Azalduko dugu:

Hasieran auzo konposta egiten zutenentzat gai organikoaz arduratzeak hobariek ekarri zituen: 2014 - 2017 bitartean auzo zein autokonposta hobari

handiagoak izan ditu, edukiontzi marroia jarri zenean zituenak baino. Gure ustez, irizpide egokia zen hori. Denborarekin, auzokonpostaren zabalkunde eza eta alderdi batzuen jarrera ezkorrak ekarri zuen 2018ko ordenantza fiskaletan auzokonpostaren hobaria eta edukiontzi marroiarena berdintzea. Une honetan aurreikusitako genuen zein izango zen hurrengo jokaldia, hain zuzen 2019an etorri zena, hots, edukiontzi marroiaren hobariek auzokonpostarena baino handiagoak izatea. Bilketa garestiagoa eta kutsakorragoa denak, sari hobeagoa izango zuen, norberak bere borondatez, bere arduraz, eguraldi txarra hala ona, txukun eta kontzienteki eginiko lanak baino. Gainera aldaketa hauen berri ez zitzaien jakinarazi zuzenean auzokonpostaren erabiltzaileei. Hau da, lan gehiago egin eta gainera gehiago ordaindu, hobarien aldaketen berri ematea baino zer gutxiago, ez?

Logikoa denez, Udalaren babes publiko ezari, edukiontzi marroiara isurtzeak hobari handiagoa izatea (nahiz eta

agian ez izan arrazoi bakarra) gehitzen badiogu, iragartzeko modukoa zen auzokonpostaren heriotzaren bidean jarri du. Andoainen sistema jasangarri eta iraultzaile hau heriotzera kondenatu da (egun Ondarretako gunea besterik ez da geratzen 4-5 erabiltzaileekin) batzuen estrategia aurrera ateraz, beste batzuk jabetu ere egin gabe. Bide horretan gure akatsa Udal politikari eta arduradunak gehiago ez presionatzea izan da.

Tristuraz idazten ditugu lerrook baina ez dugu etsitzen. Auzokonpostak etorkizuna eduki dezake Andoainen eta hor dugu adibide gisa gertu dugun Hernani, non biztanlegoaren %25ak egiten duen auzokonposta, baina horretarako Udalak jarri behar du lanean:

- Auzokonpostaren alde eginez, asmoz nahiz diruz.
- Sentsibilizazio kanpaina edo lan bat eginez.
- Gune berriak irekiz.
- Hobariei dagokionean hasierako egoerara itzultzea; auzokonpostak edukiontzi marroia erabiltzeak baino hobari handiagoa izan behar du.

HEMEROTEKA

Udal hauteskundeak, duela urtebete

2019ko maiatzaren 26an Udal hautetsiak aukeratzeko hauteskundeak deitu zituzten, eta Andoainen eta Urnietan emaitzek garaipen argiak eskaini zituzten. EH Bilduko Andoni Alvarezek garaipen argia lortu zuen Andoainen, inoiz hautagai batek lortu duen botu kopuru gehiena jasoz. Emaitza argia izan arren, PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien arteko akordio batek agintaritzarik gabe utzi zuen EH Bildu.

Andoain	2019	2015
EH Bildu	2.823	2.112
PSE-EE	1.940	1.887
EAJ-PNV	1.680	1.750
Podemos	606	
PP	204	289

Urnietak	2019	2015
EAJ-PNV	1.501	1.428
EH Bildu	838	757
PSE-EE	483	391
PP	70	62

Urnietan Mikel Pagolak eta EAJ-PNVk euren nagusitasuna berretsi zuten, bigarren agintaldian jarraian gehiengo osoari eutsiz.

Kargu hartze ekitaldiak ekainaren 15ean izan ziren.

AIURRIKO HARPIDETZA KANPAINA BEREZIA

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitez harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Maiatza-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 25 eurokoa baino ez da

BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK



25 €

Harpidetza egiteko sar zaitez Aiurri.eus webgunean: aiurri.eus/bazkidetu/



*OHARRA: Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago



Telematikoki egin zuten maiatzaren 26ko Udal batzarraldia. AIURRI

Merkataritzari laguntzak

Zorpetzea saihestea argudiatuta, Udal Gobernuak gehiengoa baliatu du merkataritzari bideratutako proposamena onartzeko. EH Bilduk eta PSE-EEk alde bakarrez jokatzeari leporatu diote EAJ-PNVri, merkatarien eskaerei entzungor egin diela leporatuz

Andoni Urbistondo URNIETA

Udal Gobernuak merkatariei eta autonomoentzako diru laguntzak arautuko dituen kreditu aldaketa onartu zuen astearteko pleno telematikoa. EAJk bere gehiengoa baliatu zuen, eta aldeko zapi botoekin proposamena onartu. Oposizioa bi alderdiek kontra bozkatu zuten, bai PSE-EEko bi zinegotziek, baita EH Bilduko lau zinegotziek ere. Sei zazpiren aurka, orotara. Mikel Pagola alkateak 408.000 euroko kreditu aldaketa jasotzen duen proposamena eraman zuen plenora, eta diru kopuru horretan jasotzen

dira merkataritza sustatzeko erabiliko diren kopuruak (herriko bi obretara zuzenduko den diru kopuruarekin batera). 195.000 euroko diru laguntza zuzena emango du Udalak merkatariei eta autonomoentzat, eta beste 70.000 euro bono laguntzetan, herritarrek bono horiek Urnietako komertzioetan erabil ditzaten. EAJko Jorge Segurado bozeramaleak iragarri zuenez, bonoen %25 Udalak jarriko du, beste %75 komertzioek. Laguntza zuzenak jasotzeko bete beharreko baldintzak hurrengo egunetan jakingo dituzte merkatariek.

"MERKATARITZA BONOAK EFEKTU BIDERKATZAILEA IZATEA NAHI GENUKE"

JORGE SEGURADO (EAJ-PNV)

"ZUENGAN SINETSI GENUEN, BAINA ZUEN PLANA ONARTU DUZUE"

AINARA DE MIGUEL (EH BILDU)

HERME GONZALEZ (PSE-EE): "EZ GAITUZUE ENTZUN"

Oposizioa bi alderdiek hitz gogorak izan zituzten Udal Gobernuarentzat. PSE-EEko Herme Gonzalez bozeramaleak onartu den ekimena EAJren jokamoldearen ispilua izan dela salatu zuen: "Gehiengoaz abusatzen duzue. Zuen plana egin duzue, eta zuen proposamena onartu. Ez gaituzue entzun, ez oposizioa bi alderdion, ezta merkatariei ere". Gonzalez-ek Udalaren zorpetzea defendatu zuen, "pandemiak oso gogor kolpatu duelako komertzioa. Eman dituzuen

"EZ GAITUZUE ENTZUN. EZ OPOSIZIOARI, EZTA MERKATARIEI ERE"

HERME GONZALEZ (PSE-EE)

laguntzak eskasak dira, errealitate gordinetik urrun daudenak. Politikariok herritarren arazoak konpontzen saiatzeko gaude, baina gure ekarpenak aintzat hartu ez dituzue, aurka bozkatu dugu".

PSE-EEko bozeramaleak oposizioa bi alderdiek adostutako eskaera zehaztu zuen: 80.000 euro autonomoentzat, 200.000 komertzioentzat, 140.000 bonoetan, eta beste 100.000 giza larrialdietarako. "Gure ustez onartzeko moduko kopuruak, Udalak zorpetu egin behar bazuen ere. Baina herritarrek beharra dutenean, Udalek zorpetu egin behar dute".

AINARA DE MIGUEL (EH BILDU): "MERKATARIEI EZ ZAIE ENTZUN"

EH Bilduko Ainara de Miguel bozeramalearen ahotan, "merkatarien desesperazioa entzun dugu, aurrea hartu digute, baina ez zaie erantzun". Udal Gobernuak onartutako kreditu aldaketarekin norantz bakarreko politika bultzatzen dela esan zuen De Miguelek: "Nork agintzen duen erakutsi nahi izan zaigu, baina bide horrek guregan eta herritarrengan mesfidantza sortzen du". Gobernatzeko orduan iritzi aberastasuna lagungarria dela esan zuen EH Bilduko bozeramaleak, "baina hitz itsusiak erabiliz, ipurdia airean dugula utzi gaituzue. Sinetsi egin genuen zuengan, Udal Gobernuarengan, denen ekarpenak aintzat hartuko zenituztela esan zenigutela, baina zuen plana onartu duzue. Ez duzu zuen proposamenean sinesten". Kritikak kritika, De Miguelek etorkizuneko elkarriketaren bitartez lor daitezkeen akordioak lotzeko borondate irmoa edukiko

dutela jakinarazi zuen. EH Bilduko lau zinegotziek Udal Gobernuaren proposamenaren aurka bozkatu zuten.

JORGE SEGURADO (EAJ-PNV): "DIRUA BEREHALA ERABIL DAITEKE"

Udal Gobernuak Jorge Segurado bozeramalea eta Mikel Pagola alkatearen bitartez eman zituen azalpenak. Seguradok bonoen laguntzan egin zuen indarra: "%25a jarriko du Udalak, eta %75a merkatariek. Efektu biderkatzailea izatea nahi genuke, bezeroa fidelizatu, eta urnietarrak erosketak Urnietan egiteko deia egin". Kreditu aldaketaren bidea erabiltzeko hautuaz, azalpen hau eman zuen Seguradok: "Modu horretan dirua berehala erabiltzeko aukera izango dugu".

MIKEL PAGOLA, ALKATEA: "ZORPETZEA SAIHESTU DUGU"

Mikel Pagola alkateak ere hitza hartu nahi izan zuen, zorpetzeaz azalpenak emateko: "Matematika kontuak dira. Udalak 10 milioi euroko aurrekontua du, baina dagoeneko badakigu %20 gutxiago jasoko dugula pandemiak eragindako krisi ekonomikoagatik. Bi milioi euro dira, diru asko, eta gastuak 1.5 milioi eurotan murrizteko aurreikuspena egin dugu dagoeneko. Halere, oraindik 500.000 euroko zorra pilatuko dugula esan nahi du horrek, eta gure proposameneko 400.000 euroak zorpetzearen bitartez arautu izan bagenitu, gure zorpetzea 900.000 eurora iritsiko litzateke. Zorpetze handi hori saihestea erabaki dugu kreditu moldaketaren formula erabiliz".

Merkatariek Udal Gobernuak babestutako ebazpena aztertuko dute zehatz, jaso bezain pronto, eta euren iritzia jakinarazi ahalik eta azkarren.





Egaite dantza taldeko kideentzat garrantzia handiko asteburua izaten zen. AIURRI

Gazte Festen ordeez, kultur jarduerak

Urnietan Gazte Festak bere horretan ezin dira antolatu, baina asteburura begira herriko elkarteek kultur egitarau laburra prestatu dute. Musika, dantza eta bertso saioak izango dira, Urnietako Udalarekin elkarlanean antolatu direnak

Jon Ander Ubeda URNIETA

Urnietako Udalaren oharra adierazgarria da, oso. Asteburu honetan gizarte eta kultur bizitza ez da geratuko. Gazte festak bere horretan ospatzea ezinezkoa bada ere, hitzorduren bat edo beste izango dela iradokitzen ari da: "Musika eta dantza ikuskizunak izango dira Urnietako kultura bizirik dagoela erakusteko, betiere segurtasun neurriak errespetatuz eta bermatuz, eta kalean ikusle asko pilatzea saihestuz". Era berean, igandean 11:00tan hasita, bertso eskolako ikasleen bertso batzuk entzuteko aukera izango da Urnietako Udalak Youtuben duen kanalean.

Sentsibilizazio lana balkoitik balkoira

Udalak kartel batzuk prestatu ditu "Gazte Festak 2020 Gora Urnieta" leloarekin. Kartel horiek herriko merkatalguneetan eskura ditzakete herritarrek dohainik. Asmoa, herria kolorez

eta animozko hitzez betetzea da. Kartelak etxeokok dekoratzeko eta margotzeko modukoak dira.

Kultura balioan jartzeko asmoa adierazi du Urnietako Udalak

Udalak parte hartze aktiboa izango du festen ordeezko egitarauan, kultur jardueretikiko konpromisoa adieraztearekin batera: "Antolatu den egitarau txikiarekin kultura balioan jarri eta herria zertxobait alaitu nahi da, baina herritarrei arduraz jokatzeko eskatuko zaie, kalean musika edo dantza ikuskizunen batekin topo eginez gero, pilaketak ekidin eta pertsonen artean mantendu beharreko segurtasun neurriak errespetatu ditzatela".

"ANTOLATU DEN EGITARAUAREKIN KULTURA BALIOAN JARRI ETA HERRIA ALAITU NAHI DA"

Koronabirusak eragindako krisiaren ondorioz, Urnietako Udalak apirilean maiatzeko ekitaldi oro bertan behera geratuko zirela iragarri zuen. Hots, Santa Krutz eguna Azkorte hermitan, San Isidro egunezko ospakizunak Lekaio kultur etxean edota Gazte Festak. Baina ordutik hona panorama aldatuz doa, eta Udalak fase ezberdinen garapena kontutan hartu nahi izan du. "Oraindik egoera oso zail batean murgilduta jarraitzen dugun arren, egoera zertxobait egonkortu da eta herritarren mugikortasuna murrizten zuten neurriak malgutu egin dira". Asteburu honetarako kultur egitarau labur bat prestatu dute.

"MUSIKA ETA DANTZA IKUSKIZUNAK IZANGO DIRA KULTURA BIZIRIK DAGOELA ERAKUSTEKO"

Datorren urtean izan beharko du



2018ko Gazte Festetako afaria, Egaiteko jolastoki estalian. AIURRI

Gazte Afaria Gau tematikoak egiteko joera zegoen Urnietan, eta hainbat koadrila mozorrotuta ikusteko aukera aproposa zen. Maiz Egaite ikastolako jolastoki estalian ospatu izan ziren afariak. Datorren urterako gogoa bikoitza izango da.



2017ko Gazte Bazkaria. AIURRI

Gazte Bazkaria Poteoa, bazkaria eta elektrotxarangaren emanaldia ohikoa izaten zen larunbatean. Baita gaueko kontzertua ere. Aurtengoan ezingo dira horrelakoak egin, osasun alarma egoeratik horrelako ekitaldiak antolatzea galerazita dagoelako.



2018ko dantzari txiki eguna. AIURRI

Dantzari Txiki eguna Kaleak eta plazak jendez lepo betetzen zituen kultur hitzordua ez da ospatuko. Lastima, kimu berriak dantzan ikusteko aukera paregabea zelako. Iritsiko dira dantzan aritzeko aukera berriak.

Ostalaritza krisi aurreko egoerara itzultzen ari da

Terraza duten tabernak ez zituzten berehalakoan zabaldu, eta azken egunetan mugimendua areagotu egin da. Herrigune osoan zehar taberna ia guztiak zabaldua daude. Denetan ere segurtasun neurri bereziak hartzen ari dira

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ostalaritzako negozio asko irekiz joan dira egun hauetan. Terraza zerbitzua eskaintzen duten Aker, Traiñerum eta Muga izan ziren lehenetakoak, eta haien ondoren irekiz joan dira Amama Klaudia, Gaztelutxo, Tokitxo, 97, Maiton, Aterpe, Olloki... Gipuzkoa osoa Alarma Egoeraren bigarren fasean murgilduta, datozen asteetan gogor kolpaturiko sektorea bere osotasunean berrabiaraziko da. Jatetxea duten negozioak irekitzea falta da. Beste hainbaten artean, Andoainen aski ezagunak diren Elizondo, Danena edota Txitibar taberna-jatetxeak.

Lanera bidean etxetik kanpo gosaltzen dutenentzat panorama aldatuz joan da, egun hauetan. Kafetegiak alde batera utzita, maiatzaren 25era arte gosaltzeko eskaintza egiten duten taberna guztiak itxita zeuden. Besteak beste, Zumea plazako Danena, Kale Nagusiko Urkiola, Ondarretako Edur, Goikoplazako Elizondo eta Anaiak, Kaletxiko Buruntza edota Ama Kandida etorbideko Irrintzi.

Maiatzaren 25ean panorama aldatuz joan zen

Gipuzkoa alarma egoeraren bigarren fasean sartzearekin batera, panorama aldatu zen. Ur-

kiola eta Edur zabalik zeuden. Terraza zerbitzua egokitzen ari ziren, ordu horretan. Eta Irrintzi tabernaren barrualdean jendea gosaltzen ari zen. Goizak aurrera joan ahala, Goikoplazako taberna gehiago irekita zeuden. Normaltasuna ezartzeko asteak falta diren arren, herriari bizitza ematen dioten taberna ia guztiak zabalik daude.

HERRIARI BIZITZA EMATEN DIOTEN ANDOAINGO IA TABERNA GUZTIAK ZABALIK DAUDE



Astelehen goizean zabalik zegoen Ama Kandida etorbideko Irrintzi taberna. AIURRI



Elizondo, Danena edo Txitibar zabaltzeko gutxiago falta da. AIURRI

Bigarren fasean baimendutako jarduerak, eta bete beharreko baldintzak

OSASUN ALARMARI BURUZKO IRIZPIDEAK ERTZAINTZAN ETA UDALTZAINGOETAN ANDOAIN, URNIETA

Zein merkatalgune egon daiteke irekita?

Alarma-egoera deklaratu ondoren jarduera eten zaien txikizkako establezimendu eta merkataritza-lokal eta zerbitzu profesionaleko jarduera guztiak berriro ireki ahal izango dira, honako baldintza guztiak betetzen badituzte:

- A) Merkataritzako establezimendu eta lokalen guztizko edukiera % 40ra murriztea. Hainbat solairutan banatutako establezimendu edo lokalen kasuan, bezeroak solairu bakoitzean egoteak proportzio hori bera gorde beharko du.
- B) 65 urtetik gorakoentzat lehentasunezko arreta-ordutegia ezartzea.

Merkealdia eskaini daiteke merkatalguneetan?

Bai. Merkataritza-establezimenduen egiten dituzten merkataritza- edo sustapen-ekintzekin batera. Beharrezko neurri egokiak hartu beharko dituzte, jendepilaketarik ez sortzeko, segurtasun-distantzia zaintzeko, edukiera-mugak betetzeko eta agindu honetan ezarritako

gainerako neurriak arriskuan ez jartzeko. Baita aipatutako merkataritza- edo sustapen-ekintzak berehala eteteko ere, beharrezkoa izanez gero.

Hileta-beilatokiak

Beilatokiak mota guztietako instalazioetan egin ahal izango dira, publikoetan zein pribatuetan, eta, gehienez ere, 25 pertsona egon ahal izango dira aire zabaleko espazioetan edo 15 pertsona espazio itxietan, elkarrekin bizi edo ez.

Hildakoaren ehorzketarako edo errausketarako segizioan gehienez ere 25 pertsonak baino ez dute parte hartuko, senitartekoen eta hurbilekoen artean, bai eta, hala badagokio, kasuan kasuko aitorpeneko kultu-ministroak edo pareko pertsonak ere, hildakoaren agur-errituak egiteko.

Kultu-lekuetara joan ahal izango da, leku horren edukieraren %ko 50 baino gehiago betetzen ez bada, eta osasun-agintariak ezarritako higienearen eta urrutze fisikoaren neurri orokorra betetzen badira.

Ezkontza-zeremoniak

Mota guztietako instalazioetan egin ahal izango dira, publikoak zein pribatuak, aire zabaleko espazioetan edo itxietan, betiere edukieraren % 50a gainditzen ez bada, eta gehienez ere 100 pertsona elkartzuz aire zabaleko espazioetan edo 50 pertsona espazio itxietan.

Hotelak, apartahotelak, landa-etxeak, turismo-ostatua, kanpinak.

Ireki litezke. Eremu komunak publikoarentzat irekitzea baimentzen da, betiere edukieraren herena gainditzen ez bada.

Ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduetan zerbitzua emateko baldintzak

Terrazak ireki daitezke, baina mahaien % 50eko mugarekin, udal-baimenaren arabera. Nolanahi ere, mahaien artean gutxienez bi metroko distantzia fisikoa mantentzen dela ziurtatu beharko da. Hala ere, Udalek mahaien kopurua handitu ahal izango dute, baldin eta azalera proportzionala handitzen bada.

Lokalaren barruan kontsumitu ahal izango da, baldin eta edukieraren % 50a gainditzen ez bada eta baldintza hauek betetzen badira: Lokal barruan, mahaien eserita edo mahaiak elkartzuta bakarrik kontsumitu ahal izango da. Bezeroak ez du inola ere onartuko autozerbitzua barran. Halaber, establezimenduan bertan egin ahal izango da bertako janaria eta edaria enkarguz eraman ahal izateko eskaria.

Zilegi al da gizarte-bilerak etxetan, lokal pribatuetan nahiz erabilera publikoko lekuetan egitea?

Bai, 15 pertsonako mugarekin, osasun agintariak ezarritako distantzia fisikoa eta norberarenganano babes-arauak errrespetatuz.

Zilegi al da adinekoen edo desgaitasunen bat duten pertsonen egoitza-zentroetara eta tutoretzapeko etxebizitzetara bisitak egitea?

Bisitak egin litezke eta bertakoek paseoak ere eman ahal izango dituzte, beti ere Foru Aldundiak zehazten duen araudiaren eta egutegiaren arabera.

"Ikasleak talde txikitan antolatu ditugu"

AGUSTIN URRETABIZKAIA URNIETAKO MAGALE IKASTETXEKO ZUZENDARI PEDAGOGIKOA Prestaketa lan handia egin eta gero, aste honetan ikasturteari berrekin dioten ikasleak normaltasun osoz hasi dira



Agustin Urretabizkaia. AIURRI

Mikel Arberas URNIETA
Nolakoa izaten ari da ikasgeletara buelta, zuen ikastetxean?

Nahiko lasaia izan da hasiera. Tailerreko lanak egiteko edo erreparosia egiteko ikasleak talde txikitan antolatu ditugu. Ezarritako segurtasun eta garbitasun neurri guztiak ondo betetzen ari dira. Txintxo-txintxo.

Geletan giroa nolakoa da?

Segurtasun distantziarekin eta elkarrekintza gehiegi eduki ezinik, hotzagoa da. Lehen taillerretan beste giro bat ikusten zen. Lehen zegoen zalaparta hori orain ez da somatzen.

Ikasgelak egoera berrira moldatzeko lana nolakoa izan da?

Lan asko egin behar izan dugu. Duela hiru aste desinfekzio eta garbiketa lanekin hasi ginen, eta moldaketa pila bat egin behar izan dugu. Tailerrean ere moldaketa handiak egin ditugu, lanpostu batetik bestera distantzia handiagoa izan dadin.

Zein mailako ikasleak itzuli dira?

Astelehenean Lanbide Heziketako 2.mailako ikasleak hasi ziren, praktikaldiarekin jarraitzeko asmoz. Asteartean 1.mailakoak hasi ziren, eta datorren astean DBHko 4. mailako ikasle gutxi batzuk hasiko dira, eta baita batxilergokoak ere. Batipat unibertsitateko sarbide-proba prestatzeko.



Lanbide Heziketako ikasleak izan ziren itzultzen lehenak. AIURRI



DBH 4 eta Batxilergoko ikasleak txanda hurrengo astean izango da. AIURRI

Kultura- eta aisialdi-jarduerak irekitzea baimentzen da

Museoek jendearentzat ireki ahal izango dituzte instalazioak, areto eta espazio publiko bakoitzerako aurreikusitako edukieraren erdira arte.

Kultur etxeei, antzokiei eta zinemei dagokionez, edukieraren herena baimentzen da, 50 pertsonako mugarekin.

Espazio irekietan, barrutiaren edukieraren herena izango da gehieneko edukiera, 400 pertsonako mugarekin, publikoak eserita, eta distantziak eta gainerako segurtasun-neurriak bermatuta beti.

Espazio publikoetan maskarak erabiltzearen nahitaezkotasuna.

Nahitaezkoa da sudurra eta ahoa estaltzen dituzten maskarak erabiltzea, ahal dela higienikoak eta kirurgikoak, 6 urtetik gorako pertsonentzat.

Ehiza eta kirol- edo jolas-arrantza

Jarduerak baimenduta daude, modalitate guztietan, berariazko araudian ezarritakoaren arabera, betiere segurtasun-distantzia eta osasun-agintariei ezarritako higiene eta prebentzionerriak errespetatzen badira.

Ehiztari bat baino gehiago inplikatzeko duen ehiza-jarduera antolatuari dagokionez, arduradunak jarduteko plan bat



AIURRI

eduki beharko du, zaindu beharreko prebentzio- eta higiene-neurriak zehaztuta.

Ba al dago banakako kirola eta ibilaldiak egiteko ordu-tarterik?

Ezabatu egin dira pertsonen mugikortasuna murrizten zuten ordu-tarteak.

70 urtetik gorako pertsonak eta arriskutaldeen lehentasuna izango dute erabilerarako publikoko guneeetan, 10:00etatik 12:00etara bitarteko ordutegietan eta 19:00etatik 20:00etara bitarteko ordutegietan.

Zilegi al da autokarabanak erabiltzea?

Bai, bai joan-etorrietarako, bai ostalaguetarako, bizilekua finkatuta dagoen udalerriri dagokion Lurralde Historikoaren barruan, betiere, ibilgailuaren kanpatzeari eta aparkatzeari buruz indarrean dagoen araudia errespetatuz.

Hondartzetan baimendutako jarduerak

Hondartzetako joan-etorria eta egonaldia, bai eta kirol-, lanbide- edo jolas-jarduerak egitea ere, banaka eta kontaktu fisikorik gabe egin daitezke, eta parte-hartzaileen artean gutxienez bi metroko distantzia eta gehienez 15 pertsonako taldeen arteko distantzia mantentzea zaindaz.

Objektu pertsonalak, eskuoihalak, etzateko aukiak eta antzeko elementuak beste erabiltzaile batzuekiko bi metroko segurtasun-perimetroa bermatzeko moduan kokatuko dira, elkarrekin bizi diren bainularien kasuan izan ezik.

Aisialdiko bainuak baimenduko dira, bai eta eguzkia modu estatikoan hartzea ere, baldin eta hondartzako araudiak baimentzen baditu.

Udalek mugak ezarri ahal izango dituzte, bai sarbideari dagokionez –doakoa izango da–, bai hondartzetarako edukierari dagokionez, bainularien artean gutxienez bi metroko pertsonen arteko distantzia errespetatzen dela ziurtatzeko.

Joan al daiteke familiako pertsona baten bila aireportura, geltokira...?

Bai, lurreko garraioko ibilgailuak okupatzeko eta maskarak erabiltzeko baldintzak betez. Bizilekua finkatuta dagoen udalerriri dagokion Lurralde Historikoaren barruan egingo da joan-etorria.

Bidaia al daiteke bigarren egoitzetara?

Bai, norberak egoitza finkatuta daukan udalerriri dagokion Lurralde Historikoaren barruan.

Bertan lo egin ahal izango da.

Zirkulatu al daiteke IAT iraungita duen ibilgailu batekin?

Bai, horrela zirkulatu ahal da, salbu eta IATA 2020ko martxoaren 14rako iraungita ez bazegoen edo-ta berritzeko hitzordua hartu gabe bazeneukan.

* Ertzaintzak eskualdeko tokiko hedabideetara bidaltako txostenaren laburpena da. Osorik, Aiurri.eus webgunean.



Goikoplazan azken asteetan antolatu eta gero, Merkatu plaza Makaldegira itzuli da berriro. AIURRI

Merkatua Makaldegira itzuli da

Hiru hilabete eta gero, merkatu plaza Makaldegian egin ahal izan zen berriro. Aurrerantzean, asteartero eta larunbatero azoka egiteko baimena emango dute. Salmenta oraingoz mugatuta dago, soilik janari eta produktuen salerosketarako

Xabier Lasa ANDOAIN

Hamabost saltoki ziren denera, Makaldegian. Eta saltzaileei galdezka, hurbildutako bezero kopurua garai bateko beretsua zen. Postu finkoa duten horietakoak dira Maite Iturbe ogi eta pasta saltzailea eta Antonio Parron gozoen saltzailea.

MAITE ITURBE, LEGAZPITIK ANDOAINERA OGIA SALTZERA

Udana auzotik asteartero etortzen da Andoainera: "Asteko gaine-ara egunetan Ordizia, Markina, Legazpia eta Zumarragako merkatuetan ipintzen dut postua. Neu arduratzen naiz produktuen ekoizpenetik salmenetara doan kate guztiaz, diru kontuak ere nire esku doaz. Gaur, adibidez,

goizeko 02:00tan jaiki eta ogia egitea egokitu zait. Egia esan, gaur ilusioz hartu dut Andoaingo bidea gaur. Hiru bat urte daramatzat Andoainen eta dagoeneko bezero fijo mordoska daukat. Adinekoak batez ere, goizean goiz postura hurbildu eta pozez agurtu naute berriro Makaldegian ikusi nautelako. Ez dakit gertatu zaigun krisi honen ondoren bertan egindako produktuei garrantzia ematen hasiko ote garen edo ez, baina beharko genuke! Egunero ikusten ditut tokian tokiko baserri-errek ekoiztu eta salgai jartzen dituzten porruak, tomateak, letxuak... beste inon nekez topatuko ditugu horiek baino jaki osasungarriagoak!".

ANTONIO PARRON, 37 URTEZ MERKATU PLAZAN

Andoaindarrak 37 urte daramatza gozo eta opilen saltokian, Felisa Iturriekin batera. Ezin hobeki ezagutzen ditu Andoaingo azokaren ezaugarriak: "Postu honetatik atera gabe, makina bat andoaindarraren eboluzioa bizitzea egokitu izan zait. Bezero asko eta asko jada ez zaizkit bertaratzen, hil direlako edo eta mugikortasun arazoak dauzkatelako. Begi bistakoa da merkatauen indarra jaitsiz doala, urtez urte. Bi arrazoi aipatuko nituzke. Erosleei dagokionez, orohar, adinez aurrera doazen pertsonak dira merkataua gogokutenak. Gazte jendeak nahia- go dute saltoki handietara joan



Maite Iturbe legazpiarra ogia egiteko goizeko 02:00tan jaiki zen. AIURRI



Antonio Parron, 37 urtez Merkatu plazan dendari ari den andoaindarra. AIURRI

eta erosketa handiak egitea. Prezioari begiratzen diote asko, kalitateari hainbesteko garrantzirik eman gabe. Baina maiz, beste zenbait faktore balantzan jarritz gero –dendariaren zerbitzu pertsonalizatua, autoaren erabilera, osasuna–, azkenean merkea garesti atera zaigu.

Eta bestetik, saltzaile batzuk erretiroa hartu eta ez zaie erleborik heldu; seme-alabek beste ogibideren bat aukeratu dute".

Azoka aurreko hiru larunbatetan Goikoplazan egin ostean, Makaldegira itzuli da. Bi tokien artean dauden berezitasunez galdetuta, askorengan errotuta dagoen mentalitatea hizpide izan du Parronek: "Herri honetan oraindik ere antzematen da badagoela marra moduko bat gaildeko eta behekaldeko partearen artean. Alde bateko eta besteko komentarioak entzun ditut azken aldian, lehen ere entzundakoak: Merkatua Goikoplazan edo Makaldegian egiten den bitartean ez direla igoko edo

jaitsiko. Bada zergatik ez den txandaka egiten galdetzen duenik, egun batean goian eta bestean behean". Txandaka egiteko galdera hori, batipat, gaikaldekoek egiten omen dute: "Bereziki, dendariak. Ohartu baitira merkatuak ez diela kalterik egiten. Aitzitik, merkataua den egunetan hazi egiten da inguruko dendarien negozioa. Azken batean, merkataua eta dendak martxan dituen herri bat bizirik mantentzen da. Ekuazio hori kale bizitasunean antzematen da berehala, herriz herri ikustea besterik ez dago. Aldiz, zenbat eta azalera handiko saltoki gehiago, orduan eta denda gutxiago eta ondorioz tristeagoa bilakatzen da herri bizitza".

"MERKATUA ETA DENDAK MARTXAN DITUEN HERRI BAT BIZIRIK MANTENTZEN DA"



Beñat Ariztimuño, Olaia Zapirain, Iñaki Altzuguren, Aitziber Ugartemendia eta Arkaitz Lasarte. AIURRI

"Herriaren babesa jaso dugu"

Ezjakintasuna nagusi da Irunberri kultur elkartearen inguruan, 35/02 delako sumarioa noiz eta nola aplika daitekeen ez dakitelako. Bien bitartean, taberna eta elkartearen martxa berrekiteko lanean ari dira

Mikel Arberas ANDOAIN

Zer leporatzen zaie herriko tabernei?

Lehenik eta behin nabarmendu nahiko genuke epaiketa eta kasu guzti hauek antidemokratikoak direla. Duela bi hamarkada Baltasar Garzon epaileak auzia hasi zuen, 35/02 makrosumarioan, eta 34 pertsona prozesatu zituzten; horietatik batzuk espetxeratu zituzten, tartean Lizaso andoaindarra.

Herriko tabernen auziari dagokionez, finantziazio delitua leporatzen zaie eta guk argi dugu hau sekula eman behar ez zen epaiketa bat izan zela.

Zein da Irunberri kultur-elkartearen egoera, une honetan?

Azken asteetan berri ezberdinak zabaldu dira eta zurrumurruak Euskal Herrian barrena zabaldu dira. Herriko batzuetan, besteak beste, kontu korronteak moztu eta blokeatu egin dituzte. Andoingo kasuan ez dugu horrelako berririk jaso.

Horrez gain, salatu nahi dugu espainiar justiziak Koronabirusaren ondorioz deitutako kon-

35/02 SUMARIOAN IXTEKO ARRISKUAN LEUDEKE ANDOINGO IRUNBERRI TABERNA ETA ELKARTEA

finamendua eta osasun alarma erabili dituela prozesu zikin hau atzeko atetik burutzeko.

Irunberrin elkarte eta taberna dago. Zeri eragingo lioke itxierak?

35/02 makrosumarioan Herriko tabernak konfiskatzeko agindua eman zuten. Bai taberna eta bai elkarte gastronomikoa, biak egongo lirateke isteko arrisku bizian.

"PROZESU JUDIZIALA HASI ZENETIK HERRITARREN ALDETIK BABES MEZU UGARI JASO DUGU"

Nola ikusten duzue egoera, etorkizunari begira? Irtenbiderik ikusten al duzue?

Argi eta garbi esan nahi dugu irtenbidea oso erraza dela. Uste dugu, norbera demokratikotzat jotzen duen edonork astakeria den sententzia hau bertan behera uztea eskatu beharko lukeela.

Andoaindarrontzat kuttuna den Irunberri kultur-elkartea bakean uztea nahi dugu, eta utz gaitzela beti egin dugun bezala herriatik eta herriarentzat lan egingen. Hori da gure ustez bideragarria den etorkizun bakarra.

Esanak esan, espainiar justizia eta estatu antidemokratikoa ezagututa ez gaude batere baikor. Lehen esan bezala, epaia behin betikoa da, eta, beraz, ez daukagu itxaropen asko. Ez dakigu etorkizuna zein izango den, eta arazoetako bat hori da; sasidemokrazia honetan horrelako kasurik eman ez denez, ez dagoela aurrekaririk. Hala ere, etorkizuna iluna ikusten dugu, baina proiektu kultural gisa lanean jarraituko dugu inongo dudarik gabe.

Zein da bertako langileen egoera?

Etorkizunaz hitz egin baino lehen, uste dugu orainaz hitz egin beharko genukeela, eta hemen dik gure besarkada handiena langileei, egoera hau pazientziaz eramaten ari direlako. Dakizuen bezala taberna itxita dago Koronabirusak eragindako krisia hasi zenetik, baina hasieratik argi genuen langileen eta erabiltzaileen osasuna lehen lerroan jarri behar genuela. Horrez gain, beraien lan baldintzak mantentzeko hautua hartu genuen, beraien soldatak errespetatu ditugu, nahiz eta lanera etorri ez diren. Erabaki hauekin euren jarrera errespetatu nahi izan dugu.

Tabernako eta elkarteko materialari dagokionez, aspaldi egin zen zerrendatzea eta lokal guztietan inbentarioa egin zen. Jakingo duzuen, Irunberrin berrikuntza asko egin da, materiala erosi da eta konponketak egin dira; beraz, bai, inbentario bat dago, baina berrikuntza guz-

ti horiek bereizita geratuko lirateke legeez. Hala izan beharko luke, baina esan bezala, Estatuarekin ez dago jakiterik.

Herritarren edota alderdi politikoen babesa jaso duzue?

Bai, jakina. Bazkideen eta bazkide ez direnen babesa jaso dugu; ez hori bakarrik, tabernan edo elkartearen beraien bizitzako edozein memento bizi dutenek helarazi digute babesa. Azken urte hauetan guztietan, prozesu judiziala hasi zenetik babes mezu ugari jaso dugu eta, horregatik, lanean jarraitzeko erabakia hartu genuen, taberna eta txokoa irekita mantentzeko eta herriaren zerbitzura lanean jarraitzeko.

Aspaldiko kontuak direnez, maila nazionalean mezu ofizial ugari jaso genituen alderdi politiko ezberdinengandik. Andoingo kasuan, azkeneko berri hauek jaso ditugunetik, EH Bildu izan da gaiaz arduratu den alderdi politiko bakarra.

Nola amaitu daiteke Herriko Tabernen kasua?

Tamalez, ez gaude oso itxaropentsu. Ez daukagu espainiar justiziarekiko inongo konfiantzarik, ez dugu politikoki ere aurrerapausorik emango dutenaren zantzurik sumatzen. Jakin badakigu epaia aldaezina dela eta, beraz, lehenago edo beranduago ixteko agindua eman dezaketela. Guretzako garrantzitsuena ez da lokal bat irekita mantentzea, baizik eta proiektu kultural bat edukitzea.

Zer suposatzen dezake Irunberri Kultur-elkartearen itxierak?

Ostalaritza oso egoera kaskarra bizitzen ari da azken urte hauetan eta bereziki, azken hilabeteetan osasun krisia dela medio. Kale Nagusiaren erdigunean gaude kokatuta, eta hemen badakigu zer den inguruko tabernen itxierak ikustea. Herriarentzako beste komertzio bat istea beti da tristea eta tamalgarria. Ez dugu esan nahi Irunberri kultur-elkartearen itxierarekin guztia amaituko denik; hau da, kultur proiektua moldatu egin beharko litzateke.

Amaitzeko, garai latz hauetan Axier eta Ainhoa euskal presoak gogoratu nahiko genituzke. Bidegabeko epaia bertan behera uzteko garaia dela uste dugu; eta ezin ahaztu ere espetxeetan dauden preso guztiak, Andoaindik elkartasuna adierazi nahi diegu. Besarkada bana, bie!

"LEHENAGO EDO BERANDUAGO IRUNBERRI IXTEKO AGINDUA EMAN DEZAKETE"



IRITZIA

IBAN ARANTZABAL GOIENAKO ZUZENDARIA ETA TOKIKOM TOKI KOMUNIKABIDEEN BATERAGUNEKO ADMINISTRATZIO KONTSEILUKO KIDEA

10 arrazoi zero kilometroaren alde

Merkatu txikia, produktuak baserritarrei, gatza ondoko dendan, arropak komertzio txikian... eta zure edukiak? Zure informazioa? Zure istorioak? Non? Hamar arrazoi bertako komertzioek eta komunikabideek bat eginda jarduteko:

BAT I Zero kilometroa da tokiko produktua edo gertuko produktua.

Horixe da tokiko komunikabideak eskaintzen dizuna, gertuko produktua. Etxe ondoko informazioa, zure ezagunek idatzitako istorioak edota zuk zeuk kontatutakoak. Gure lerroetan irakurriko dituzunak dira zero kilometroko edo gertutasuneko gaiak. Zero kilometroa izango da zuretzako eta baita ingurukoendako ere.

BI I Sortu, banatu eta kontsumitu bertan, burujabetza komunikazioan.

Euskal Herrian sortu, Euskal Herrian banatu eta Euskal Herrian kontsumitu. Burujabetza komunikazioan eta zer esanik ez gutxitua den hizkuntza komunitate batean. Dena zero kilometro filosofiarekin, dena bertatik bertara, hurbil, tokiko. Eskualdekoa eskualdean.

100 kilometroren bueltan baduzu mezua zabalduko dizun komunitatea.

100 kilometroren bueltan egiten baduzu helduko da 1.000 edo 10.000 kilometrora ere, eta ilargiraino eta buelta.

100 kilometroren bueltan lagundu egingo zaituzte eta ez 1.000 kilometrotik harantz.

100 kilometroren bueltan elkar zainduko dugu eta, kontrara, zenbaki bat baino ez zara izango multinazionalendako. Zure datuez jabetu eta aprobetxatuko dira, erreparorik gabe.

HIRU I Erabili multinazionalak, ez zaitzatela beraiek erabili.

Zabalkunderako egokiak izan daitezke, edukiak partekatzeko zailantza gehiago. Edukiak bertako zerbitzarietan, bertako paperezko prentsan, bertako telebistan, hemengo webguneetan, komertzioaren webgunean... Noski, ez gara inor ondo doakionari zer egin esateko, beti da norbere erabakia. Askotariko kasuak daude eta bereizgarri askorekin. Pentsa dezagun baina, ezer ez dela gratis et amore.

LAU I Publizitatea

Facebook erabilita helduko zara zure bezeroengana? Instagram, Facebook eta Whattsappen jabea berbera da eta erabili egiten zaitu. Erabili zu paretik kendu eta egunen batean bezeroarengana zuzenean heltzeko. Epe motzekoa da lilura, eta ahal duenean soineko hori edo zapata horiek

berak eskainiko dizkio bezeroari, ez zure komertzioak. Harrotu egingo da merkeago eta etxeko atera eramango duela esanez. Osatu zuk zeuk kontrolatuko duzun bezeroen datu basea, egin publizitatea herriko komunikabideetan, erabili zure kanal propioak, topatu mezularitza zuzena zure bezeroekin, izan burujabe. Ez zara damutuko.

BOST I Euskaraz.

Zeinek imajinatuko luke 2020a euskarazko publizitaterik gabe? Zaila egiten zaigu... Ba hori ez du lortu Facebookek, hori ez du eragin kioskoetan dituzuen 100 argitalpenetatik 99k, ez du egin Amazonek. Ez dezagun atzera egin 30 urtean irabazi duguna galduz. Euskaraz gertukoago da, sinesgarriago eta fidagarriago.

Datuekin negoziatzen dituzten horiei ematen jarraitu zure edukiak? Haiek lagunduko dute gure hizkuntza komunitatea?

Egoitza Ameriketako Estatu Batuetan duen multinazionalaren ikuspegitik, ala zure etxetik 500 metrora bizi den kazetariaren eskutik nahi duzu informatzea?

SEI I Lokala da oraina eta etorkizuna, ez globala

Lanean gabiltza globalizazioan galduta ez geratzeko. Txikiegiak gara gure edukiak oparitzen jarduteko. Euskal komunikabideetatik bagabiltza informazioa lantzen eta helarazten urtetan. Jasotzaileok ere, gero eta gehiago izateaz gain, balorazio altua ematen diozue komunikabideen lanari. Herri prentsak ere laguntzen du duintzen tokiko komunitatea.

Nekez du beste 30 urte bizirautea baldin eta: sorkuntza —komunitatekideok egiten dituzuen sormen lana— Facebooki oparitzen bazaio; zuen umearen zorion-agurra Instagramen publikatu eta nahikotzat baduzue; zuen bideoak Youtuben bakarrik zintzilikatuta edo Whattsappi emanda inola ere ez duen sinesgarritasuna...

Ezin esan enpresa erraldoi horien erremintak ez erabiltzeko. Askok erabiltzen ditugu jendearengana heltzeko, baina ez itsutu horiei bakarrik jaten ematen. Haiei bost axola zaizkie gure herria, eskualdea, euskara, gure istorioak, gure izatea, komunitatea... Gugandik axola zaien bakarra da dirua, dolar bihurtzen dituzten euroak. Aspertu arteraino entzuten da sare sozial horiek doan direla, baina gezur gaiztoa da. Gure datuekin trafikatzan du Facebookek edota Whattsappek, esaterako. Zuen datuak esplotatuz lortzen dute etekina, eta horretarako ez zaie inportako zu

bazterrean uztea. Gu bazterrean uztea. Silicon Valleyko logikatik sortutako plataformei globalizazioa komeni zaie, bateratzea: hizkuntza, gaiak, edukiak... Dena globalizatzen jardun nahi duzu?

ZAZPI I Eta Facebook edota Youtube itxiko balute?

Zuen Youtubeko bideo guztiak galduta, Facebookeko material guztia kaput. Instagrami oparitu dizkiozuen argazki eta momentu guztiak zaborretara eta birziklatzeko aukerarik ez. Komunikabideok ere galdu genituen horrela ehunka bideo ordu, gure kontrolpekoak ez diren plataformak erabiltzeagatik.

Tokiko komunikabideok 30 urtean zuekin batera osatu dugun materiala lizentzia librepean uzteko lan egiten ari gara, aspalditik sortzen dugun guztiak du lizentzia libre. Herriatik sortua, herriarekin egina eta herritarrena da gure proiektua. Herri egiten du tokiko prentsak, eta zuk ere aukeratu zenezake: herri egiten edo multinazionalen esku utzi zure kontrola.

ZORTZI I Ez, ez dira saldu nahi diguten plaza publikoak.

Facebook, Instagram... Ez, ez dira plaza publikoak. Pribatuak dira, diruaren mesedetan daude eta ezkutuko erabilpena egiten dute gure datuekin. Ez dira gardenak, ez dizute ematen ezta profila guztiz ezabatzeko erraztasunik ere. Dirua egitea zilegi da; zerbitzu baten truke egiten dute, gainera. Hala ere, jauntxo berriak dira, ohiko estruktura politikoen gainetik jarri nahi dutenak, gainera. Non ordaintzen dituzte zergak hauek guztiek?

Erein eta osatu gertuko komunitatea eta ez indartu feudalismo global berria.

Zuk oparitutako eduki hori ez dute gordeko publikoki eta zure jabetzakoa bezainbeste edo gehiago izango da multinazional hauen jabetzekoa. Ez dute zure esku utziko berriz, ez dute batere arazorik izango herritarrek jositako sareak deuseztatzeke. Diruaren logikak bakarrik agintzen du, milaka eta milaka kilometrotara daude erabakiguneak, urrunetik erabakiko dute zer, noiz eta nola.

Eta ez dira neutralak: ideologia jakin bat dute, zer erakutsi eta zer ez beraiek erabakitzen dute. Facebooken publikatzea ez da Interneten publikatzearen pareko; ez da Instagram=Intenet; Whattsapp ez da publikoa.

BEDERATZI I Erantzunkidetasuna

Norberaren erantzukidetasuna da mustuari jaten eman edo zure herrietako


komunikabideekin bat egin; gure ardura den moduan herriko dendetan erostea; edo gure ardura den moduan baserritarrei erostea zuzenean zein merkatuetan. Eskatzen zaio herritarrari ondoko dendan erostea, eta ez da asko eskatzea tokiko komunikabideekin pentsatzea, Facebooken altzoan goxotasuna bilatu ordez. Berdin erakunde publikoek. Badute erantzukizunik udalek beraien edukiak enpresa erraldoi horiei oparitzen? Udalek Whattsapp taldeak erabili behar dituzte? Publizitatea jarri Facebooken? Zero kilometro eskatzen duenak zero kilometro ere eskaini behar luke. Erabaki egin behar da munstroari jaten ematen jarraitu behar dugun, noiz, zenbat, zertarako, zein arrisku... Erabaki libre da, noski.

HAMAR I Bertakoa kontsumitu:

1. Elkar zainduko duen komunitatea sortuko da: herritarrak eta kazetariak; komertzialak eta komertzioak; herri-merkatuak eta komunikabideak.
2. Klikak bertan, bisitak bertan, zergak bertan. Multinazionalak erabili zabalkunderako behar badituzu, baina ez kanal bakar moduan.
3. Erabakigunea zuk ezagutzen duzun jendeak izango du eta bezeroen onerako pentsatutako erabakiak hartuko dira. Ez da multinazionalen kasua.
4. Denda txikiak errespetatuz egiten dute lan eskualde edo herri mailako komunikabideek. Bat gara.
5. Ekologikoa da zure edukia gertuenekoen konpartitzea eta kontsumitzea.
6. Irismen masiboa dute tokiko komunikabideek. Zurea kontsumitzeko bertako komunikabideekin kontatu.
7. Euskaldunei lagunduko diezu. Euskarari ere bai. Euskaldunok zerbait behar badugu da euskarazko edukia euskaldunon eskuetan. Eman ta zabal zazu.
8. Zure herriko komunikabidean eginda, euskarazko komunikabideen sarea elikatzen duzu.
9. Entzun egingo zaituzte tokiko hedabidean eta batera jardun. Bertatik bertara.
10. Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau.

GERTUKO KOMUNITATEA = TOKIKO KOMERTZIOAK + TOKIKO KOMUNIKABIDEAK

0
km



HEDABIDEEGIN
ERE BAI

HITZORDUAK

AGENDA ATALEAN IRAGARTZEKO. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 28

ANDOAIN Euskara

Andoaingo AEK euskaltegiak aurre matrikulazio kanpainari ekin dio. Askotariko ikastaroak eskainiko ditu, beste batzuen artean, aurrez aurreko eskolak, autoikaskuntza, gurasoentzako ikastaroak edota etorkinentzako AISA ikastaroak. **Informazioa: 688 74 66 43.**
E-posta: andoain@ae.eus.

OSTIRALA 29

ANDOAIN Musika

Udal musika eskolako musika tailerretan izena emateko epea amaitzear dago.
Azken eguna: Maiatzak 29.
10:30-13:30 / 16:00-17:30.

ANDOAIN Laguntzak

COVID-19aren ondorioz sortutako laguntza eskaerak tramitatzeke epea amaitzear da. Diru-laguntzak Andoaingo merkataria, ostalari eta langile autonomoei zuzenduta daude. Ordutegia: 09:00-13:00.
Tokia: Urigain.
Informazioa: 943 304 221.
Argibideak: Andoain.eus.
Azken eguna: Maiatzak 29.

LARUNBATA 30

ANDOAIN Musika

San Juan jaietako txupinazoa nork botatzeko deialdia zabalik dago.
Azken eguna: Maiatzak 30.
Webgunea: Andoain.eus.

ASTELEHENA 1

URNIETA TAO zerbitzua

Baimendutako gehieneko aparkaldia 60 minutukoa izango da lanegunetan eta larunbatetan, eremu bakoitzerako zehazturiko ordutegiaren barruan. Igande eta jaiegunetan berriz, ez da TAOrik izango.
Ekainaren 1etik aurrera.

ANDOAIN, URNIETA Hauteskundeak

Hauteskunde erroldaren zerrendak jendaurrean ikusgai daude, ekainaren 1a bitarte. Erreklamazioak Donostiako Jose Maria Soroa kaleko 23an dagoen hauteskunde-erroldaren bulegoetan egin behar da.
Azken eguna: Ekainak 1.

OSTEGUNA 4

ANDOAIN Solasaldia

'Geroa euskaratik' kanpainaren baitan, elkarlanean antolatu dute mahai-ingurua Kontseiluak eta Martin Ugalde Foroak. Mahaikideak: Josu Amezaga, Idurre Eskisabel eta Amelia Barquin. Hirurak unibertsitateko irakasleak dira. Sarrera mugatua 25 lagunentzat. Saioaren emankizuna Internet bidez, berria.eus webgunean.
19:00 M.Ugalde Kultur Parkea.

ASTELEHENA 8

ANDOAIN Lehiaketa

San Juan jaietako kartel lehiaketa martxan jarri dute.
Azken eguna: Ekainak 8.
Webgunea: Andoain.eus.

Maskarak eta eskularruak

Erabili eta gero, errefusara bota behar direla ohartarazi du Urnietako Udalak: "Bide publikoan bagaude, errefusaren edukiontzira bota behar dira. Etxean egonez gero ostera, plastikozko poltsa batean sartu behar ditugu, eta, ondoren, errefusaren frakziara bota". Gel hidroalkoholikoen eta antzekoen poteen kasuan berriz, edukiontzi horira bota behar dira.



@CHEIBERROLL

Sagardoaz gozatzeko aukera berriro zabalik

Sektoreak kolpe latza jaso du, eta bat baino gehiago negozioa berriabarazteko lanean ari da. Andoaingo Mizpirarik ateak zabalduko ditu asteburu honetan, eta laster iritsiko da Gaztañagaren txanda. Elutxeta datorren astean zabalduko dute

Mikel Arberas ANDOAIN

Sagardotegi askorentzat urtarrean hasten den denboraldia ezinbestekoa da urte osoko lanari etekinak ateratzeko; baina koronabirusak eragindako egoeragatik txotx denboraldia bertan behera geratu behar izan zen. Sagardotegi askok euren negozioak birmoldatu edo itxi behar izan dituzte, datorren denboraldirarte.

MIZPIRADI ETA ELUTXETA, IREKITZEN LEHENAK

Alarmaeren bigarren fasera igarota, zenbait sagardotegik ateak irekiko dituzte pandemiak sortutako kalteak murrizteko. Andoaingo sagardotegien kasuan, Mizpiradi dagoeneko ireki dute eta jada erreserba deiak jasotzen ari dira. Aldiz, Gaztañaga sagardotegikoek oraindik ez dakite noiz irekiko duten.

Urnietako sagardotegiei dago-kionez, Elutxeta izango da ateak irekiko dituen bakarra, datorren ekainak 4an. Oianumek eguneko menuak eta otorduak eman-go dituela jakinarazi du, baina ez du sagardotegia bere horretan irekiko. Setien, Eula eta Altuna sagardotegiak ez dituzte ateak irekiko, ez behintzat epe laburrean.



Andoaingo Mizpiradi sagardotegiak asteazkenean zabaldu zituen ateak. AIURRI



Urnietako Elutxetak datorren ostegunean zabalduko ditu ateak. AIURRI

Bertso jarriak eta berriak

II. Fasera sartuta, sagardotegien barrualdea irekitzeko aukera dago aforoaren % 50arekin, eta segurtasun distantziak aintzat hartuta. Horiek denak antolatu eta martxan jarrita, Iparragirre Sagardotegiak ekitaldi bereziar antolatu du. Eñaut eta Unai Agirre anaiak eta Aitor Mendiluze izango dira gonbidatu bereziak. "Bertso jarriak eta berriak" saio berezia eskainiko

dute, lehengo bertso zaharrak eta oraingo bat-batekoak uztartuz.

Erreserbak Iparragirre Sagardotegira deituta egin behar dira, 943 55 03 28 telefono zenbakira deituta. Osñaga auzoan dago Iparragirre baserria. Hitzordua datorren ekainaren 6an izango da, 20:30an hasita. Afaria eta bertso saioaren prezioa 35 eurokoa da.



Aitor Mendiluze. AIURRI

HITZORDUA

MARTIN UGALDE KULTUR PARKEA ANDOAIN

“Euskara ere normalitaterantz?” Martin Ugalde foroan, ekainaren 4an

Normalitate berri bat dugu jokoan, COVID-19ak agerian utzi dituen hutsune eta desberdinkeriei aurre egiteko bestelako neurri eta erabakiak hartu behar baitira. Eta iparrorratz horretan euskarak ere egon behar duela ziur da Kontseilua, bai behintzat gizarte berdinzale, kohesionatu eta demokratikoago bat eratu nahi badugu.

Mezu horixe aldarrikatzeko ‘Geroa euskaratik’ dinamika abian du Kontseiluak euskagintzako nahiz bestelako norbanako zein taldeen babesarekin. Hainbat ekimen antolatuta dira, eta horietako bat izango da ekainaren 4an Martin Ugalde kultur parkean egingo den Euskara ere normalitaterantz? mahai-ingurua. Arratsaldeko 19:00tan hasiko da.

Eman beharreko urratsei begira

Geroari begira eman beharreko urratsei buruz jardungo du mahai-inguruak. Izan ere, COVID-19aren krisiak zera erakutsi digu: alde batetik, hizkuntza eskubideak bigarren mailakotzat jotzeko joera dagoela erakunde eta bestelako agenteen partetik, gutxitutako eta zaurgarrien eskubideak eta beharrak izan direlako kaltetuenak; eta, bestetik, etorkizuna beste modu batera planteatu behar dela, hain zuzen ere, gizarte kohesioa eta denon eskubideak bermatzeko. Horregatik, mahai-inguru honek azaleratu diren premia, erronka eta aldeketen aurrean, euskarak zein ekarpen eta zentralitate ukan beharko lukeen aztertuko du, hainbat ardatzetatik. Izan ere, sinistuta baikaude euskararen normalizazioak bestelako gizarte normalizazio batean lagundu dezakeela, eta ertz horiei helduz hitz egin nahiko genuke euskararen garapenaz. Begirada anitzetatik gaiari heltzeko, esparru ezberdinetan ari diren hiru gonbidatu elkartuko ditugu.

Alde batetik, Josu Amezaga EHUko soziologoa izanen dugu, euskara, euskal kultura, hedabideak eta identitatea aztergai izan dituenak, besteak beste. Bestetik, Idurre Eskisabel kazetaria eta EHUko irakaslea gonbidatu dugu, generoa, nazio identitatea eta euskararen eta feminismoaren arteko elkargunea lantzen dituelako, besteak beste. Eta, azkenik, Amelia Barquin batuko zaigu, kultur eta hizkuntza aniztasunean eta hezkuntzan aditua den HUEZiko irakaslea.

Publikoarentzako lekua

Martin Ugalde Kultur Parkearen areto nagusian egingo da mahai-ingurua, eta, ondorioz, entzuleek bertatik bertara solasaldia jarraitzeko aukera izango dute. Izan ere, segurtasun neurri guztiak beteta, 25 lagunentzako lekua egongo da. Bistan da kopuru mugatua dela. Horregatik, etorri nahi duenak, aldeztu aurretik izena eman beharko du honako helbidera idatziz: martinugalde@kulturparkea.eus.

Mugak muga eta neurriak neurri, aurrez aurre elkartzaren aukera izatea garrantzitsua dela uste dute Kontseiluak eta Martin Ugalde Foroak. Elkartzeak eta elkarrekin pentsatu eta jarduteak aparteko garrantzia duela erakutsi baitigu krisiak. Hala ere, etxean geratu nahi duenarentzat streaming-a ere eskainiko du Berriak. Gainera, #geroeuskaratik traola erabiliz galderak ere egiteko aukera izanen dute entzuleek. Mahai-inguruaren amaieran galdera horietako batzuk hautatu, eta zuenean egingen zaizkielako gonbidatuei.

GEROARI BEGIRA EMAN BEHARREKO URRATSEI BURUZ JARDUNGO DU MAHAI-INGURUAK



N1 errepidea, Andoain parean. AIURRI

Epaitegiek atzera bota dute garraiolarietako ezarritako kanona

Aldundiak helegitea aurkeztuko duela iragarri du; Hiru sindikatuak orain arte kobratutakoa itzultzea eskatu du

Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoako Foru Aldundiak garraiolarietako Andoain, Astigarraga eta Etzegaraten jarritako peajeen aurkako bigarren epaia kaleratu du Euskadiko Justizia Auzitegiak.

Aldundiak adierazi duenez, ordainsaria ezartzeko tresneria ez du bertan behera utziko, eta atera berri den epaiari helegitea aurkeztuko diola iragarri du.

Auzitegiak magistratuak argudiatu dute bide-saria diskriminatzailea dela, Euskadikoak ez diren kanpoko garraiolarietako lurraldeko hiru peajeetatik igaro behar dutenez bertakoekin baino kostu handiagoa dutelako.

Aldundiak 2016an ezarri zuen kanona lehengo aldiz, eta ondoren Auzitegiak erabakiaren kontrako lehen epaia kaleratu

zuen. Bigarren epai honetan ere antzeko argudioa erabili du.

Aintzane Oiarbide Bide Azpiegiturak departamentuaren diputatuak epaiaren zentzuarekin ez daudela ados adierazi du, Euskadi Irratiari eskainitako adierazpenetan: “Europaren abala jaso genuen eta diskriminaziorik ez zegoela ziurtatu genuen. Ezin dugu ahaztu, N1 errepidea erabiltzen duten kamionari guztiek ordaintzen dutela, inolako diskriminaziorik gabe”. Bestalde, Jaione Ugalde Hiru garraiolari autonomoen sindikatuko ordezkariak garraiolarietako orain arte kobratu dien guztia itzultzeko eskatu dio Aldundiari. Gaineratu duenez “peajeak ez lirateke azpiegiturak ordaintzeko erabili behar; zergen bidez izan behar luke hori, publikoak diren heinean”.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Jon
Urte askotarako Jon! Maiatzaren 28an 8 urte bete dituzu. Muxuak etxeko guztion partez!!




ANDOAIN

Oinatz
Zorionak eta muxuak etxeko guztien partez, eta bereziki, Unax eta Aner lehengusuen partez! Ondo pasa!



ANDOAIN

Izaro Irazu Roman
Izarok 13 urte beteko ditu maiatzaren 30ean. Muxuak etxeko guztien partetik.



ANDOAIN

Josu Rabadan Larrea
Gure muttikoak ekainaren 6an urtebete! Muxu goxoak maita.



ANDOAIN

Aroa eta Libe
Zorionak! Aroak 7 eta Libek 5 urte beteko dituzte maiatzaren 29an eta ekainaren 8an. Muxu potoloak etxekoan partetik.



ANDOAIN

Joxe Mari
Ekainaren 2an, Joxe Mari Ollakarizketak urteak beteko ditu. Zorionak eta urte askoan! Ondo ospatu eguna. Aupa Martija!!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- **diseinua@aiurri.eus**
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefono zenbakia:** 943 300 732.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Osasun zentroa: 943 006 670.





Josu Pagola eta Beñat Senperena eskubaloiko lehen taldeko jokariak. AIURRI

Bigarren denboraldi bat 2. Nazional Mailan

ESKUBALOIA Pasa den astean egin zen ofizial UKE eskubaloiko taldeko gizonen senior mailak mailari eutsiko diola. Martxoan, liga eten zenean, jaitsiera postuetatik kanpo zegoen

Andoni Urbistondo URNIETA

Pasa den astean egin zen ofizial Euskadiko eskubaloiko ligak bertan behera geratzen zirela. Maila galtzerik ez dela egongo ebazti zuen Euskadiko Federazioak, eta ofizial egin UKE eskubaloiak beste denboraldi bat jokatu duela 2. Nazional mailan. Ofizial egin zain zeuden Urnietan, baina lasai, kirol merituak aintzat hartuta lotua baitzeukaten mailari eusteko erronka. Lehiaketa eten zenean sailkapeneko azken laugarrena zen UKE, beste hiru

talde zituen azpitik, eta aurretik zuen Escolapios taldearekin berdinduta zeuden. Alegia, Liga bukatzeko lau jardunaldiren faltan, oso bideratua zeukatela salbazioa. Azkenean ofizial egin da eta UKEkoak irailetik aurre-

"GARBI GERATU DA EZ GENUELA MAILARIK GALTZEA MEREZI"

JOSU PAGOLA

ra 2. Nazional Mailan lehiatuko dira. "Hiru taldek maila galdezaketan, baino lau gehitxo litzateke", dio Beñat Senperena erdikoak. "Nire ustez garbi geratu da ez genuela mailarik galtzea merezi", Josu Pagola hegalekoak. Bi hilabete darमतate biek zakur amorratuen pare, entrenamendu saiorik egiteko aukerarik gabe: "Asko bota dut faltan", dio Beñatek. "Nik ere, egunerokoan izerdi pixka bat botatzea, oiher batzuk egitea lagunekin, garrantzitsua

baita. Etxetik ari naiz lanean, eta faltan bota dut eguneroko entrenamendua", Pagolak. Gauza gutxi egin dute etxean: "Arrabola eta ariketa batzuk, baino azkar nekatu naiz", Senperenak. Pagolak ere pazientzia gutxi: "Bizikleta estatikoa, ordu erdi bat, baina gehiago ezin da, nazka-nazka eginda bukatzen duzu". Beñat eskaileratan gora eta behera ere ibili omen da etxean, kirol grina apaltzeko.

Liga bertan behera uztea logikoa izan omen da: "Jakina zen. Kontaktu handiko kirola da eskubaloia, eta urruntze soziala pandemiako faktore garrantzitsua zela ikusita, ezinezkoa zen", Senperenaren ahotan. Pagolak txanda: "Berriz ere hasi ez garelako eskerrak. Takto handia galtzen duzu baloiekin, eta beste hilabete bat beharko genuke, gutxieneko prestakuntza egoki bat lortzeko". Mailari eusteko saria kantxan lortu dutela diote biek ala biek. Behe-tik utzi dituzten hiru taldeak menderatu zituzten Ligan, eta Pagolak hori egin izana jotzen du denboraldiko gakoetako bat: "Behar ziren puntuak poltsikoratu ditugu. Gure ligako taldeak zein izan diren asmatu dugu. Denboraldia gogorra izan da, lesio asko eduki ditugu, eta onenen aurka ahal izan duguna egin dugu, garaipena oso zaila zela jakitun. Gure ligako taldeen aurka, ordea, oso neurri ona eman dugu, eta horregatik eutsi diogu".

Balantzea ezin hobea da Senperenarentzat: "Berriak ginen 2. Nazional mailan, eta irailean gure pentsamendua zen ea zenbat muturreko jasoko genituen, jokatu dugun kategoria Gipuzkoako Lehen Maila baino askoz fisikoagoa baita: jokari handiagoak, indartsuagoak...". Fisikoki indar handiko jokariak omen daude, "eskarmentua dutenak maila horretan... Guk batere ez!", Pagolaren ñabardura. Talde bezala moldatu egin behar izan dute, ahuldade edo gabezia horretara. Senperena: "6-0 defentsa bat egitea ezinezkoa izan da guretzat, 12 metro-

"EZIN IZAN DUT KIROLIK EGIN BI HILABETEZ. ARRARO SENTITZEN NAIZ"

BEÑAT SENPERENA

ko jaurtiketa egiten duten alboko indartsu asko baitaude Ligan. Korrika egitea bilatu dugu, joko estatikoa baino, alor horretan ondo moldatzen gare-lako". Pagola Gasteizko Corazonistas taldeko pibotarekin oroitzen da, "110 kilokoa, edo Basauriko hegalekoak, oso oso indartsuak, gimnasioan ordu asko sartu dituztela erakusten zutenak".

Denboraldi berrian pentsatzen

Gonzalo entrenatzaileak ez du jarraituko, Usurbil igo berrira bueltatuko delako. Lejardik ere taldea utziko du, Usurbilekin jokatzen. Ander Elustondo, Aiert Labaien, Peru Sanchez, Oier Duran eta Beñat Errazkin igoko dira jubentzetatik, eta taldea osatzeko nahikoa osagai izango dutela uste dute. Senperenak eta Pagolak jarraitzeko asmoa dute, eta Eneko Urruzola albokoa ere taldera itzuliko omen da, ikasketak direla eta etenaldia egin ondoren (Xabat Salaberria ere bueltatzekotan da). "Taldea eramaten dakien entrenatzailearen bat izatea nahi nuke, gure artean oso giro ona baitauekagu", dio Senperenak. Zuzendari lana egin dezakeen norbait eskatu du Pagolak.

Datorren denboraldian garesti jarriko da mailari eustea. Jaitsierarik ez da egon, baina igoerak bai, bi: Usurbil eta Urdaibai. 16 talde denera, eta diotenez, 4 jaitsiera. Denboraldia luzeagoa eta gogorragoa izango da, "baina politagoa ere bai", Pagolaren ustez. Aurtengoa baino lau jardunaldi gehiago, 30 denera, eta aurre-denboraldia ere lehenago hasi beharra, uztaila bukatzerako. Bai Beñat, bai Josu, entrenamenduak has-teko irrikan daude, uztaila bukaera lehenbailehen hasteko gogotsu: "Kirola egiten ohitua nago, ezin izan dut egin bi hilabetez, eta arraro sentitzen naiz", dio Senperenak. Pagolak berriro entrenatzen hasteko benetako arrazoia eman du: "Lehen ere esan dut oso giro ona daukagula, familia baten parekoa. Entrenamenduek partidetara garamatzate, eta partida ostean afariak, parrandaxoak eta beste daude. Gutako askorentzat aisialdirako aukera garrantzitsua da, deskonektatzeko aukera ezin hobea. Ea laster denboraldi bukaera ospatzeko modua daukagun".